

laister berri



Beasaingo udala

166 | MARTXOA 2007



001

AURKEZPENA

002

AURTZAKA

003

GAZTE
LAGUNTZAILEAK

004

IX ICARTZA
LITERATUR
SORKUNTZARAKO
BEKA.

005

EMAKUMEEN ASTEA

006

ICARTZA -
DOLAREA

007

HAUR ZINEA

008

GOIENIZ

010

EKINTZAK

laister berri

ADINEKOEN MENDI IRTEERAK



Aurten ere Beasaingo Udaleko Gizarte Ongizate Sailetik, Aizkomi Mendizale Elkartearen, Beasaingo Erretiratu eta Pentsiodunen Elkartearen eta Gurutze Goriaren laguntzarekin Adineko Pertsonentzat mendi irteerak eta XI. Ibilaldi neurtua antolatu dira.

IRTEERAK 2008

MARTXOAK 8

ATAUN SAN MARTIN
(SAN GREGORIO-LAZKAO-BEASAIN)

APIRILAK 19

UREDERRA
(BAKEDANO-URBASA-BEASAIN)

MAIATZAK 17

ARKAKA
(BEASAIN-LAZKAO-MENDI-ARKAKA-ZALDIBIA)

MAIATZAK 31

HONDARRIBIA (HIGER ITSASARGIA-
GUADALLUPEKO SANTUTEGIA-HIGER ITSASARGIA)

EKAINAK 14

XI IBILALDI NEURTUA (BEASAIN-ARRIARAN-BEASAIN)

Izen - emateak

Erretiratuen Ebrean Arratsaldez Mendi Irteeraren
aurreko osteguna arte.

laister berri

Diseinua:

ah_comunicación

Maketazioa:

ah_comunicación

Erredakzioa:

ah_comunicación

Publizitatea:

ah_comunicación

Imprimaketa:

Gráficas

San Martín C.B.

Lege Gordailua:

SS-654/96

Erredakzioa

helbidea:

Martina

Maiz 3/2.

bulegoa

T 943 882 257

F 943 027 639

E ah@clickah.com

Beasaingo Kultura
Batzordeak aldizkari
honen 6.500 ale
banatzen ditu hilabe
tero Beasaingo pos
tontzietan.

Eragilea:

kultura saila



Beasaingo udala



XVII. DOINU ZAHAR ETA AURRESKU TXAPELKETA.

XVII. Gazte eta gaztetxoek Aurrresku eta Doinu zahar txapelketako ligakako saio bat izango da martxoaren 8tik 9ra bitarteko asteburuan Beasainen Aurtzaka Dantza taldeak antolatuta, Udal Bandako Txistulariak lagun direla, larunbat arratsaldean eta igande goizean izango dira emanaldiak Beasaingo Usurbe Antzokian.

Larunbat arratsaldean, 16:00etatik aurrera, 12 urtetik 15urtera bitarteko gaztetxoak dantzari ikusi ahal izango ditugu. Igande goizean berriz, 11:00etatik aurrera, 7 urtetik 11 urtera bitartekoak izango dira lehiakide banakako dantzetan.



Urriatik maiatzera bitartean ospatzen diren kanporaketetako bat da Aurtzakak Beasainen antolatzen duen hau. Kanporaketa ezberdinetako irabazleek parte hartuko dute Dantzarien Biltzarrek Gipuzkoako dantza sustatzeko asmoz antolatzen duen txapelketan.

laister berri

GAZTE LAGUNTZAILEAK



Informazio gehiagorako
Gizarte Ongizate Sailera deitu 943 028075 - Silvia
edo gerturatu zaitezke.

GAZTE LAGUNTZAILEENTZAT BEKAK.

Beasaingo Udalak, 2007. urtean Garatze Bidean dauden Herrietan Lankidetzan aritzeko diren gazteen programa abian du dagoeneko.

Apirilaren 27rarte Beasaingo gazteek aukera izango duzue Beasaingo Udaleko Gizarte Ongizate sailaren lankidetzako beka programan parte hartzeko eskaerak aurkezteko.

Programa honen xedea, Beasaingo gazteak beharrik handiena duten herrialdeetan garapeneko lankidetzak-ekintzetarako sentiberatzea eta gazteen artean herrialdeen eta kulturen elkartasun-baloreak sustatzea da. Horretarako, aukeratutako gazteek, herrialde horietan zuzenean parte hartuko dute garapeneko lankidetzak-ekintzetan gutxienez 2 hilabetez Gobemuz Kanpoko Erakunde baten bidez.

laister berri

IX IGARTZA LITERATUR SORKUNTZARAKO BEKA.



Martxoaren 6an, arratsaldeko 7etan, Beasaingo Burdinolako Aretxean, IX. Igartza literatura-sorkuntzako bekaren irabazleak, Jon Martin Etxebeste oizartzuarrak, "Ero" liburuaren aurkezpena egingo du.

2006ko edizio hartan, epaimahaikoek proiektu originaltzat jo zuten, ondo pentsatua eta bikain idatzia, erotasuna oinarri hartuta gure gizartearen erradiografia zorrotza egiten duena, osasuntsu omen gaudenon hainbat gaitz eta makurkeria ere agerian utziz.

Beasaingo Udalak, CAF enpresak eta ELKAR argitaletxeak sortu eta antolatzen dute Igartza beka, 35 urte baino gutxiago izan eta 2 liburu baino gehiago argitaratu ez dituzten idazle gazteentzat. Literatur-sorkuntzako beka hori euskal kultura zabaltzeko eta idazle gazteen lanari laguntzeko asmoz sortua da.

Era berean, egun horretan aurtengo XI. edizioaren deialdia egingo da eta ekainaren 30era bitarteko epea izango dute idazle berriek proiektuak bidaltzeko.



La asociación beasaindarra ASMUBE celebrará la semana del 3 al 7 de marzo la Semana de la Mujer que culminará con el Día de la Mujer el 8 de marzo. Para la ocasión han organizado varias actividades culturales y de ocio entre las que podemos destacar la conferencia que bajo el título "Sexualidad a partir de los 50 años" y con animación de Kike Biguri y Gía explicará la sexualidad desde dos puntos de vista. Por un lado el punto de vista tradicional, que entiende la sexualidad como algo genital y coital. Por otro lado una sexología que estodo nuestro ser con una visión básica, más amplia, más humana y femenina referidas a mujeres en edad madura.

MARTXOAK 3

Irteera kulturala: Lazkaoko Benediktinoen artxibora.

MARTXOAK 4

17:30

Hitzaldia: "Sexualitatea, 50 urtetik gora".

MARTXOAK 5

18:00

ASMUBEren bilkura orokorra.

MARTXOAK 6

Kike Biguriren umorez gozatutako kafea.
Osinbeltzen.

MARTXOAK 7

Bazkideen urteko afaria.

laister berri

IGARTZA - DOLAREA



Dolareak etxeari eman zion izena.

Europar ohikoa ez den arren, Euskal Herrian baserri eta etxe gehienek berezko izena izan dute. XVI. mendeko agiri zaharretan Igartzako zubi ondoko dolarearen etxeak aipatzen dira.

1568. urteko agiri batek honela dio: "... la casa que llaman de lagaç que es de la dicha casa y solar de Ygarça..."; erdarazko bertsioan zeren eta garai hartan euskara agiri ofizialetatik bazterturik baitzegoen. 1611. urtean Igartzako andereak, Isabel de Lobianok, galtzada ondoan benta berri bat eraikitzea agindu zion Abariako Martin harginari. Adreiluz eta harriz egindako eraikuntza berri hau "Dolarea" izenarekin ezagutuko da eta bere barrualdean orain arte ezagutu dugun dolare berri bat eraiki zuten.


Dolarea eraikuntzan egiten ari diren zaharberrikuntza lanen ondorioz lur azpian Aranzadi Zientzi Elkarteko arkeologoek XVI. mendean zegoen egurrezko dolarearen aztarnak aurkitu dituzte. Hezetasuna eta oxigenoaren gabeziari esker egurra ez da usteldu eta dolarearen oinarriak bertan kontserbatu dira. Zehazki metro luzeko bi zutabe miruaren egur lanketekin eta 2,80 m. luzeko eta 0,45 m. zabalera batekin elkar lotuak. Zurezko egitura hau kontu handiarekin desmuntatu eta Gipuzkoako Foru Aldundiko biltegiara eraman dira beharrezkoak diren kontserbazio baldintzak bermatu ahalizateko.

Euskal Herrian aurkitutako mota honetako aztarna esanguratsu eta ondoen kontserbatutakoa dugu Igartzako honako hau. Ekimen hau Beasaingo Udalaren, Kutxaren eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura Sailaren arteko hitzarmenari esker gauzatu da. Dudarik gabe beste kultur ondare bat gehiago Igartza monumentu multzorako.

laister berri

HAUR ZINEA

HIRU MOSKETARIAK



Martxoak 1,
Larunbata **17:00 etan**

D'Artagnan gazteak aitak ezpataren sekretu guztiak erakutsi ondoren, Gaskoniatik Parisera alde egiten du, Luis XIII. a Erregearen mosketari bihurtzeko asmoz. Kardinalearen zaindarien 3 mosketari atxilotzen ahalegintzen dira, D'Artagnan mosketarien alde jartzen da eta laurak, elkarrekin, beren lehen borroka irabazi ondoren, betiko adiskidetzen dira.

laister berri

GOIENIZ

LA BODA DE TUYA



Martxoak 6
Osteguna
Zuzendaria:
Wang Quan'an



Mongoliaren erdian, Tuya borrokan ari da, seme-alabei eta senarrari - istripu batean elbarri geratu da - jatekoa emateko. Dibortzioa eskatu, eta beste senar bat aurkitzea erabakiko du. Baina senargaiak familia osoa bere gain hartu beharko du, tartean Tuyaren senar ohia. Zuzendariak Mongoliako nomaden bizimodua kontatu nahi digu. Filma grabatzeko bere ama jaio zeneko tokiak aukeratu zuen. Ikusiko ditugun aktore gehienak ez dira profesionalak.

REDACTED



Martxoak 12
Osteguna
Zuzendaria:
Brian de Palma.



Irakeko gerraren ondorio lazarri gisa eman zuten haren berri hainbat komunikabidek. 2006ko martxoan, Mahamudija herrikan sartu zen AE-Betako marine patruila bat. Mendeku bila zebiltzan soldaduak; ordu batzuk lehenago, erresistentziaren bonba batek taldeko kide bat hil zuen, eta giroa gori-gori zegoen. Etxe batean sartu eta nerabe irakiar bat bortxatu zuten soldaduek, eta ostean, neskatoren familia osoa hil zuten.